

IRIZPIDEAK ZABALTZEA IBILGAILU ELEKTRIKOAK BERRIZ KARGATZEKO INSTALAZIOEN IZAPIDETZERAKO, GARAJE KOMUNITARIO PRIBATUETAN

Dokumentu honetan, jarraitu beharreko hainbat irizpide jasotzen dira ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazio elektrikoak izapidetzen jarraitzeko, konkurrentzia publikoko gunetzat katalogatu ez diren garaje komunitarioetan.

Hain zuzen, 842/2002 Errege-Dekretuak onartutako Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa da erreferentziako araudia (REBT), baita 2018ko irailaren 3ko Ebazpena ere, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, ibilgailuen garajeetako instalazio elektrikoaren zerbitzu-abiatzeen, handiagotzeen eta aldizkako ikuskatzeen espedienteak tramitatzeko argibideak ematen dituena.

Irizpide horien ondorioetarako, kontuan hartuko da garaje desklasifikatuaren kontzeptua, zeina adierazitako 2018ko irailaren 3ko Ebazpenean erabiltzen den. Horretan, neurri espezifikoak hartu dituen garajea hartuko da garaje desklasifikatuaren definiziorako, bereziki, errekontza osatugabeko gasen eta erregaien lurrunetze-gasen metaketaren ondoriozko sute-edo lehertze-arriskua desagertzeko, REBTaren mendeko instalazio elektrikoak dituzten gune guztietan.

Garaje horietan, oro har, behar adinako aireztapena dago haiek ez hartzeko sute-edo lehertze-arriskuko lokaltzat; hortaz, haien instalazio elektrikoari ezin zaie aplikatu Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren (REBT) BT-29 Jarraibide teknikoa; horregatik, desklasifikatutzat jotzen dira.

Ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazioak mugatzen ditu BT-52 Jarraibide Teknikoak sute-edo lehertze-arriskuko sailkapena ez duten lokaletara; hortaz, ezin izango da instalatu, BT-29 Jarraibide Teknikoaren arabera, aipatutako arrisku-guneetarako diseinatu eta eraiki den instalazio elektrikoaren dute garajeetan.

GARAJEAREN DESKLASIFIKAZIOA

Aurreko puntuaren arabera, ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazio bat jarri aurretik, beharrezkoa da ziurtatzea *klasifikaziorik gabeko* garajea dela. Horretarako, duen dokumentazioaren arabera jardun dezake:

Proiektu baten mende ez dagoen ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazioei dagokienez:

- a) Baldin eta garajearen jabeak dagokion dokumentua badu garajearen instalazio elektrikoaren zerbitzua abian jartzeko eta ez bada sute-edo lehertze-arriskua duten lokaletarako:
Ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalatzaileak, ardura bere gain harturik, desklasifikatutzat jo ahal du berriz kargatzeko instalazioaren kokagunea, hau deklaratu: indarreko araudiaren arabera, aipatutako arriskurik gabeko lokaletan egin zen instalazio elektrikoaren, eta aipatutako zerbitzu abiarazte horrekin bat jarraitzen du.
- b) Garajearen jabeak ez badu abian jartzeko dokumentua:
Instalatzaileak Lurralde Ordezkaritzari eskatu ahal du informazioa Ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazioaren kokaguneko garajearen instalazio elektrikoari buruz. Ordezkaritzak zerbitzua abian jartzeko dokumentua aurkituz gero, kopia edo ziurtagiri bat emango dio orduan erregistratu zen garajearen instalazio elektrikoaren administrazio-egoerari buruz.
- c) Aipatutako dokumentua ez badago, amaitu gabeko zerbitzua abian jarri izanaren administrazio-espedientea egon beharko du.
229/2012 Dekretuaren Xedapen Iragankorra aplikatu beharko da. Hau adierazten da horretan: *2012-12-04 baino lehenago hasitako eta bukatu gabeko espediente guztiak*

izapidetuko dira Dekretu horretan aurreikusitako arauen arabera. Hau da, zerbitzua abian jartzearen komunikazioa aurkeztu ahal da, jabekidetzako garajearen edo haren ordezkariak sinatuta, espedienteari ofizioz gehitzea eskatuz Ordezkaritzaren eskuetan dagoen dokumentazioa. Ordezkaritzak zigilatu beharko du komunikazio hori, salbu ez badago funtsezko dokumentazioa bideratze horretarako. Sinatu eta gero, lehen kasuan egongo da.

Eta hori guztia, alde batera utzi gabe garajearen jabekidetzak, hala badagokio, orduan irekitako espedientearen ixteko beharrezkoa dena aurkeztu beharra.

- d) Aurreko kasuetako bat ez bada, baina garajearen instalazioak esleituta badu kontrol-organismo baten ikuskaritzako txosten-espedienteraren bat, errorerik gabekoa edo zuzendutako erroreak dituena, eta ez badago erantzun gabeko errekerimendurik, Erregularizazioaren Instrukzioa aplikatuko da; hala ere, ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazioa egin ahal izango da apartatu honetan adierazi bezala, aldeko txostena kontuan hartuta.
- e) Edozein kasuan, garajearen titularrak instalazio elektrikoaren arautzeko Ordezkaritzak hasitako jarduketekin batera, ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalatzaileak kontsideratu beharko du, bere esperientzia ikusita eta bere ardurapean, sute- edo lehertze-arriskurik ez duten lokaletarako diseinatu eta gauzatu zela garajearen instalazio elektrikoaren, eta berriz kargatzeko instalazioaren kokagunea desklasifikatuz hartuko du aipatutako ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko ondorioei dagokienez soilik, hau deklaratu: indarreko araudiaren arabera eraiki zenean, aipatutako arriskurik gabeko lokaletan jarri zen instalazio elektrikoaren, eta horrela jarraitzen du.
- f) Instalatzaileak uste badu ez dela egokia ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko gunearen aireztapena edo zalantzak baditu haren desklasifikazioari buruz, berriz kargatzeko instalazioaren kokagunearen desklasifikazioa aitortu beharko du teknikari titular eskudun batek.

Proiektu baten mende dagoen ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazioei dagokienez:

Aurreko paragrafoetan adierazi bezala jardungo da; baina, teknikari titular eskudunarena izango da ardura, zeinak ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazio-proiektuan sartu beharko duen berriz kargatzeko instalazioaren kokagunea desklasifikatua delako aitortpena.

DISEINU-MEMORIA TEKNIKOAREN EDUKIA

BT-52 Jarraibide Teknikoak aipatutakoa eduki behar du diseinu-memoria teknikoak.

- Berriz kargatzeko puntua instalatzeko kokagunearen desklasifikazioa aitortzea.
- Erabili beharreko konexio-eskema.
- 2. motako eskemarako: justifikatzea zentralizazioaren fusibleak zirkuitu-etengailuen kontra babesten duela, bai bideratze indibidualean bai berriz kargatzeko zirkuituan.
- Dauden eraikinetan, 1. eta 3. eskemetarako: gehigarri gisa jasoko dute zein izango den, etorkizunean, elikatu daitezkeen berriz kargatzeko estazioen gehieneko kopurua; lehenetsita dago 3,68 kW edukitzea bakoitzak, eta kontuan hartuko da eraikinaren Elikadura-Linea Nagusiaren potentzia eta potentzia instalatuen batura berriz kargatzeko egungo estazio guztietan.
- Jasotako gainerako datuak proiekturik gabeko instalazio-mota guztietan erabilitako memoria teknikoaren eremuan.

PROIEKTUA ESKATZEKO BEHARRA

Proiektua beharko da araudian adierazitako potentzia gainditzen badu kontagailu nagusi batetik elikatzen den instalazioak: 50 kW barruko instalazioetarako eta 10 kW kanpokoetarako.

Orokorrean, irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

- 1. eskema: kontagailu nagusi batera bideratzen dira berriz kargatzeko instalazioak. Proiektua eskatuko da potentzia hori zuzenean gainditzean edo segidako handitzeak gertatzen direnean.
- 2. eskema: kontagailu arrunteko instalazio indibiduala, etxebizitzarako eta berriz kargatzeko. Kasu horretan, proiektua eskatuko da bakarrik potentzia hori handiagoa bada berriz kargatzeko instalazioa baino.
- 3. eta 4. eskema: berezko kontagailua edo zirkuitua duen berriz kargatzeko instalazioa. Proiektua beharko da berriz kargatzeko instalazio indibidualak potentzia hori gainditzean bakarrik.

JABE-ERKIDEGOARI JAKINARAZTEA

19/2009 Legearen hirugarren artikulua adierazten du nahikoa izango dela komunikatzea garajearen jabe-kidetzari. Garajeko erkidegoaren administratzaileak edo presidentek jabe-kideei jakinarazi behar die, hala badagokio, komunika dezaten ibilgailu elektrikoa berriz kargatzeko beste puntu bat ezartzeko interesdun gehiago dauden. Epe labur bat pasatu eta gero, astebetea baino laburragoa, hasierako sustatzaileari emango zaizkio eskabideak, ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko interesa dutenek, edo jabe-kidetzak, aurre-instalazioa aurreikus dezaten batera.

1. edo 3. motako eskema erabiltzen denean, ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazioaren titularrak jabe-erkidegoari ere jakinaraziko dio, jakin dezan, zein den elikatu daitezkeen berriz kargatzeko estazioen gehieneko kopurua; lehenetsita dago 3,68 kW edukitzea bakoitzak, kontuan hartuta eraikinaren Elikadura-Linea Nagusiaren potentzia eta potentzia instalatua dagokion aldiberekotasunarekin.

KOSTUEN BANAKETA JABE-ERKIDEGO BATEAN

Jabetza horizontalari buruzko Legearen eta bat datorren arautegiaren arabera egingo da berriz kargatzeko puntuei lotutako gastuen banaketa. Hasiera batean eta arau orokor gisa, onuradunek ordainduko dituzte eragindako gastuak.

Elikadura-Linea Nagusiak ez badu edukiera nahikorik eta handitu edo SPL bat instalatu behar bada, jatorrizkoa nahikorik ez izatea egin duten guztiek ordainduko dituzte aldaketak:

1. edo 3. motako eskemako instalazio berriak edo, 2. edo 4. motako eskema duten instalazioetarako jatorrizko horniduran esleitutakoa baino potentzia handiagoa. Berdin jokatuko da jatorrian instalatutako potentzia handitzen den edozein kasutan.

Aldaketak egin eta gero, beste jabe batek erabili nahi baditu, gastuak modu orekatuan ordaindu beharko ditu.

INSTALATZEKO AURREIKUSPENA EDO AURRE-INSTALAZIOA

842/2002 EDaren BT-52 Jarraibide Teknikoak 3.2 puntuan adierazten du instalazioa dauden eraikinetako lehen konexio-puntuan egiten denean, elementu komunen instalazioa aurreikusi beharko da, hau da, egitura egokituko zaio jarriko diren konexio-puntuen instalazioari.

Aurre-instalazioak, hala badagokio, lehen aipatutako erkidegoari kontsultatzearen ondorioa izan beharko du.

Araudiak ez du bereziki adierazten zertan datzan aipatutako aurreikuspen hori; hala ere, gidaren 1. eranskinaren eredia jarrai daiteke, hala badagokio, aipatutako aurre-instalazioa ez bada derrigorrezkoa.